

Laneko Segurtasun eta Osasun Politika

Pertsonak dira erakundearen oinarriko eta funtsezko elementu. Prebentzioarako mekanismoak direla medio pertsonen osasuna eta ongizatea bermatzea enpresaren betebeharrak saihestezina da eta horretara bideratu behar du beharrezkoak diren ahalegin eta baliabide guztiak arrisku larriak desagerrarazteko eta arriskuak gutxitzeko.

Dena dela, ITELAZPIk arlo honi ematen dion balio estrategiko eta lehenetsua ez da mugatzen erakundeko langileetara, gure enpresa-esparruan diharduten pertsona guztietara zabaltzen baita, alegia, azpikontratatu, hornitzaile, ostatatu eta abarretara. Zabaltze-lan handia egin dugu horiekin, gure enpresaren konpromisoarekin bat egin dezaten.

ITELAZPIk irimo eusten dio bere kudeaketa-sisteman lan arriskuen prebentzioa modu eraginkorrean integratzeko konpromisoari. Zentzu honetan, prebentzioarako politika ezartzea Zuzendaritzaren ardura den arren, horren konpromisoa harantzago doa, hain zuzen ere, erakundeko pertsona guztietara eta bertako prozesu guztietara. Hori gauzatzeko egingo dugu lan, baita horrek berekin dakartzan balioak zabaltzeko ere, nork bere zuzeneko eragin-eremuaren baitan.

Gure erakundeko pertsona guztiak dute beraiengan eragina izan dezaketen arriskuen inguruko informazio osoa. Horiei aurre egiteko eta beren funtzioak segurtasunez betetzeko prestakuntza zehatza eta beharrezko bitartekoak jasotzen dituzte. ITELAZPIk konpromisoa hartzen du lan baldintza seguruak eta osasungarriak emateko, lesioak zein lanbidearekin harremanak izan dezaketen osasun kalteak aurreikusteko helburuarekin, hori guztia gure helburu, neurri, testuinguru, arrisku zein aukeren nortasunekin bat eginik. Horretaz gain, gure instalazioetan lan egiten duten erakundeek ere arriskuei eta kasuan kasu hartu beharreko neurri buruzko beharrezko informazioa dute. Hartara, segurtasun-giroan egin ahal izango dituzte beren zereginak.

Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gai guztietan erakundeko gainerako pertsonen partaidetza eta kontsulta sustatu nahi du Zuzendaritzak. Hori dela eta, guztion parte-hartzeari eta kudeaketa mekanismoari eman nahi die bide esparru honetan. Arlo honetan erakundeak hartutako konpromisoa ez da mugatzen aplikagarri diren legezko betebeharrak betetzera. Aitzitik, gure kontestuari dagozkion bestelako konpromiso zehatzak ere betetzen ditugu; etengabeko hobekuntzaren inguruko konpromisoan oinarrituta.

ISO 45001 eskatzen dituen betebeharrak jarraituz, gure kudeaketa eredua arau honetara egokitzea beharrezkoa dugu.

2023ko iraila
Xabier Zubiaur Agirre
Zuzendari nagusia